



**7. Sutea Berpizten**  
**SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

*\*Oñati alkarregaz ezaguketako\**

## **7. Sutea Berpizten**

### **MUINA**

- Helburuak
  - Orokorrak
    - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako Erdi Aro amaieran Oñati kiskali zuen sutearen berri izango dute eta horren harira egin ziren dokumentu diferenteak ezagutuko dituzte eta horri esker hura nolako Oñati zen irudikatu. Dokumentu horien garrantziaz jabetu ostean eta transmisioa ulertzeko ahaleginak egin ostean, gertakizun hau transmititzeko ikus-entzunezko bat egingo dute.
  - Espezifikoak
    - Oñatin azken urteetan egon diren suteen berri izatea.
    - Transmisioaren kontzeptua ulertzen saiatzea.
    - Taldean eztabaidatzen jakitea eta ardurak errespetatzen jakitea
    - 1488ko sutearen berri izatea eta honi lotutako dokumentuak eta interpretazioak jasotzea
    - Ikus-entzunezko motz bat talde-lanean produzitzen jakitea
    - Laguntza eskatzeko eta zailtasunei aurre egiteko aukerak planteatzeko gaitasuna lantzea
    - Ardurak banatu eta errespetatzeko gaitasuna lantzea
- Azken xedea edo ekoizpena
  - Azken xedea izango da Oñati kiskali zuen 1488ko sutea aintzat hartuta, gertaera transmititzeko balioko duen euskarri bat talde-lanean sortzea.
- Ikaste taldea
  - Lehenengo ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

## **SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

### **HASIERA FASEA**

- 1. jarduera → Oñatiko suteak

-Sekuentzia honetan suteen inguruan jardungo dugu. Azken asteetan-edo herrian - edo inguruan - suteran bat gertatu bada aprobetxa genezake gaia lantzeko. Hala ez bada, arra piztu genezake goiena eta udaleko webguneko berrien bitartez. Hauek dira azken urteetan entzutetsuak izan diren suteetako batzuk :

- <https://goiena.eus/oinati/1481616427416-hiru-zauritu-eta-kalte-handiak-onatin-erretako-etxebizitza-batean>
- <https://goiena.eus/oinati/1440761989322-kontrolatuta-dago-onatiko-sutea>
- <https://www.oñati.eus/eu/albisteak/sutea-izan-zen-zapatutik-domekarako-gau-ean-olabarrieta-auzoan>

-Irakaslea has daiteke esanez suterik gertu ea bizi izan duten ikasleek. **Asanblada** eran jarrita erantzungo dituzte galderak. Inork bizi izan badu bateren bat galdetuko diogu ea beldurrik sentitu zuen, ea zer egin zuten (denon artean hitz egin genezake sute kasuan zer egin beharko litzatekeen etxean edota eskolan...). Ea arriskutsua den galdetuko diegu eta zergatik.

-Hau horrela, lehenago aipatutako esteka batez baliatuta, horietako bat jarriko dugu. Lehenengoan bideoa ageri da eta hori jartzea gomendatzen da, izan ere, sutearen bideoaz gain, bizilagunen testigantzak ere agertzen dira. Besteetan argazkiak ere badaude, eta albiste idatzien kasuan titularrak irakurtzera animatuko ditugu (euren maila kontuan izanda eta taldean pertinentea bada, noski).

-Bideoa ikusi ostean bideoak komentatuko ditugu, zer mailatako txikizioak izan diren... Non gertatu diren galdetuko diegu eta ea leku horiek non dauden badakiten. Denon artean aurkituko ditugu erantzunak.

-Hau egin ostean ondorio batera heltzera animatuko ditugu: Txikizioak euren neurrian handiak dira, baina gehien jota lursail edo eraikin batera mugatzen dira gaur egun, normalean -suhiltzaileen lana eta garrantzia ere aipa daiteke hemen-. Beraz, gaur egungo baliabideekin, suak egin ditzakeenak baino gaitz txikiagoa egiten duela esan daiteke. Eta botako diegu: Esate baterako, Erdi Aroan Oñatin sute bat gertatuko balitz, zer gertatuko litzateke? Eta erantzunak imajinatuzera bultzatuko ditugu.

- 2. jarduera → 1488ko sutea

-Aurreko jardueran jasotako erantzunei tira eginez, galdetuko dugu ea inork bazekien hau. Ondoren, hasiko gara 1488ko sute garrantzitsuaren inguruan hitz egiten:

*“Ba, bai. Oñatin, Erdi Aroan oso sute handia gertatu zen. Etxe pila bat kiskali zituen eta oso arriskutsua izan zen Oñatiko familientzat. Jende asko etxerik gabe geratu zen. Pentsa, gaur egun hori gertatuko balitz garrantzitsua izango litzateke? Noski! Baina bestalde sute hau gertatu zelako informazio pila bat daukagu orduko Oñatiri buruz. Beraz, alde batetik orduko oñatiarrentzat oso-oso albiste txarra izan zen; baina bestalde, horri esker dakigu Oñatin zenbat jende bizi zen, zer lanbide zeuden, zenbat auzo zeuden... Orduan, nahiko garbi imajina dezakegu XV. mendeko Oñati.”*

-Honen garrantziaz jabetzera bultzatuko ditugu haurrak. Izan ere, hau gertatuko ez balitz ez genuke zehatz jakingo orduko Oñatiren itxura, biztanleria... eta informazio horrek garai hortako bizitza hobeto ulertzera garamatza.

- 3. jarduera → Gertakizunen transmisiorako prestatzen

-Behin aurreko guztia argi utzita eta haurrak gehiago jakiteko gogoz ikustean, hurrengo kontua proposatuko diegu:

*“Esan duzue zuen ustez gertaera hau oso garrantzitsua izan zela, eta noski, gertaera honetatik oñatiarrek asko ikasi zuten. Uste duzue ikasi zuten hori euren ondorengoek jakitea nahiko luketela, hain zuzen ere, berriz berdina gerta ez zedin?”*

-Eta hau esan ostean esango diegu *“orduan uste duzue garrantzitsua dela lehen gertatutakoa ondorengoei pasatu edo transmititzea, ezta?”*. Eta honen inguruan mintzatzerantz animatuko ditugu.

-Behin kontua komentatu ostean planteatuko diegu ea gertaera garrantzitsu hau transmititzeko zerbait egingo dugun, eurentzat garrantzitsua izan bada ikaskide, guraso, hezkuntza komunitateko beste edozein langile edo partaiderentzat ere garrantzitsua izan daitekeela. Eta hemen proposatuko diegu film labur bat egitea.

-Hau horrela, proiektuaren azken xedea argi utziko dugu eta horretan jarriko gara lanean.

## GARAPEN FASEA

- 4. jarduera → Dokumentuak irakurtzen

-Jarduera honetan talde txikitan jarriko dira haurrak. Izan ere, zerbait transmititzeko informatu egin behar da norbera eta horretan trebatuko dira hemen.

-Webgunean deskarga daitezke honetarako erabiliko ditugun fitxak. Sutearen inguruko informazioa dago modu sinplean idatzita (eranskinetan beste hainbat informazio dago, baita bibliografian ere, hobeto kokatzeko).

-Behin talde txikitan jarrita, guztien artean irakurri eta ulertu beharko dute fitxetan jartzen duena (irakurmena lantzeko ariketa bezala planteatzen da). Eta taldeak ziur egon behar du taldekide guztiek dena egoki ulertu dutela. Eta informazio hori baliagarria izan dadin eurek nahi bezala moldatu beharko dute, beharrezko ikusten badute. Agian, fitxak ordena jakin batean jarrita batzuentzat nahikoa izango da eta beste talde batek, agian, marrazki bat egin nahiko du informazioa ikusteko. Nahi bezala.

-Beraz, jasotako guztia edo gehiena agertuko den film bat egingo dutela ziurtatu behar dute eta horretarako talde handian batuko dira eta elkarri kontatuko dizkiote jaso duten informazioa.

-Behin orokorrean konpartitu ostean, irakasleak galdetuko du zein den talde osoaren ustez informaziorik garrantzitsuena. Hau arbelean zerrendatzeko idazkari bat edo batzuk izenda daitezke. (Bertan parte-hartzea zaindu behar da eta laguntza behar duenari animatu eta idazkari inor izendatzean ere bere helburu pertsonalak kontuan eduki). Eta behin zerrendatuta, hori izango da egingo den filmaren edukiaren oinarria.

- 5. Jarduera → Produksioan murgildu

-Jarduera honetako helburua izango da taldearen mugak identifikatu, esperimintatu eta laguntza beharra sentitu eta eskatzea. Horretarako guztiok asanblada moduan jarrita eta irakasleak dinamizatuta, galdetuko du ea bideo bat egiteko zer gauza behar diren.

-Ezagutu beharrekoen eta materialaren zerrenda egin ostean, konturatu araziko diegu nola, esate baterako, bideoa grabatu eta editatzeko laguntza beharko dugun.

-Eta honi nola egin ahal diogu aurre? Ba lagunduko diegu ondoko ondoriora heltzen: guk ez baldin badakigu, hezkuntza komunitate honetan egongo da guk egiten ez dakigun hori egiten. Beraz, hari laguntza eskatuko diogu eta gela guztiarentzako ikastaro bat antolatuko dugu.

-Sekuentzia honetan horretarako proposatzen dena da bideoak nola grabatu behar direnaren ikastaro bat egitea 6. mailako ikasleekin. Agian, batzuk mugikorra eduki dezakete eta hau lagungarria izan daiteke.

-Ikastaro hau prestatzeko, lehenengo eta behin, zehatz-mehatz zer gauza ikasi nahi duten zerrendatu beharko dute guztiok batera. Horiek ikastaroaren puntuak izango dira. Esate baterako:

- Bideoaren egitura (aurkezpena, korapiloa, amaiera)
- Argia (argia kontrari ez grabatzea...)
- Soinua (Leku isiletan grabatzea...)
- Zoom-a
- Tripodea
- ...

-Hori irakasteko eta edizioan laguntzeko proposamena luzatuko zaie gutun baten bitartez, zeina euren gelan zuzenean entregatuko zaien.

- 6. Jarduera → Ikastaroa antolatzen eta jasotzen.

-Eurek gutuna jaso ostean, gelako arduradunen bat gela horretatik pasako da erantzunaren bila eta bilera bat adostuko dute irakaslearekin batera ordua eta eguna zehazteko (irakasleak ahalik eta parte-hartze txikiena edukitzea gomendatzen da). Gelako arduradun hori gainera, izan daiteke taldean gustura ez dagoen inor eta egiten ari den lanari irakasleak bere eta ikaskideen aurrean garrantzia ematea...

-Adostutako bileran, eguna eta irakatsi beharreko guztia adostu eta gero ikastaro hori gelakide guztiek jasoko dute eta 6. mailakoek ardura guztia hartuko dute euren gain. Irakaslea bigarren planoan egotea komeni da.

-Ikasleen jarrera ona bada ederki. Ez bada ona aprobetxa daiteke hausnarketa kolektibo bat egiteko 6. mailakoekin batera. Ea entzunak sentitu diren, nola sentitu diren...

-Behin hau eginda, taldea prest legoke aurrera egiteko.

## EKOIZPEN FASEA

- 7. jarduera → Ardurak banatzen eta lana prestatzen

-Hurrengo pausoa gidoia egitea izango litzateke. Hau talde guztiak batera egitea gomendatzen da, denek argi eduki dezaten zeren gainean egingo duten lan. Noski, gidoia zerbait oso sinplea izango da oinarri-oinarriko informazioa izango duena. Albiste forma izan dezake, dokumentala, kale-galdeketa... Libre!

Jarduera honetan parte-hartzeari emango diogu garrantzia eta ahots-isilei aukerak emango dizkiegu, hala taldean euren lekua izango dute eta aintzat hartuko dira euren buruak eta euren esanak. Horretan hartuko du parte irakasleak, ez besterik. Ea proiektuak zer norabide hartzen duen.

-Honen ostean talde txikietan banatuko dira gustuen arabera. Lehenik, identifikatu beharko dituzte talde handian zein diren burutu beharreko lanak eta helburuak markatu beharko dituzte hara heltzeko:

- Arropak:
  - Agertu behar den jendeak zer arropa jantzi behar duen erabaki eta lortu beharko du.
- Lokalizazioak eta kokapena
  - Non grabatu behar den erabaki behar dute (Gomendatzen da kolean egitea, hain zuzen ere sutea gertatu zen lekuan).
- Grabaketa taldea (6. mailakoekin)
  - Grabatzeko nola antolatuko diren erabaki beharko dute eta praktikatu. Eta grabatu ostean editatu
- Dekorazioa eta atrezzoak
  - Zer objektu beharko diren erabaki eta lortu beharko dituzte.

-Noizean behin talde guztiak batu eta guztia nola doan komentatu beharko dute. Taldean beharrik identifikatuz gero, ardurekin jolas daiteke parte-hartzea sustatzeko, idazmena lantzeko (idazkari izanez)... Horri begira egon beharko gara ezinbestean eta etengabe.

- 8. jarduera → 3,2,1... GRABATZEN!

-Jarduera hau aurrez egindako guztia grabatzeko eguna izango da. Denek edukiko dute zer egin. Protagonistak jantzi, lekua dekoratu, gidoia birgogoratu arazi... Denak hor egotea garrantzitsua izango da, guztiek ikus dezaten nahiz eta denok ez agertu, denok egindako lana izan dela.

-Honen ostean grabazio taldekoek tarte bat hartuko dute guztia editatu eta polit jartzeko. Behin hau eginda gelara eramango dute eta guztien artean komentatu eta hobetzekoak jasoko dira, hobetzekorik balego.

- 9. Jarduera → Aurkezpena

-Behin bideoa amaituta edukita, hezkuntza komunitateko hainbat kiderentzako aurkezpen egun bat egitea proposatzen da: gurasoentzat, aiton-amonentzat, eskolako langileentzat, inguruko zerbitzukoentzat (gonbidapenak bidaltzea ere haurren esku legoke)... herritarrentzat.

-Aurkezpenak lau zati nagusi izango ditu:

- Aurkezpena
  - Nor diren eta lanean parte nork hartu duen esango dute ongi etorria ematearekin batera
- Proiekzioa
  - Pelikula ikusiko da.
- Bidearen azalpena
  - Pelikula horretara heltzeko zer pauso eman duten azaldu beharko dute.
- Galderak
  - Publikoak edozein galdera izango balu, hauek egiteko tarteak litzateke.

-Irakasleak bertan gertatzen dena jasoko du ebaluazioan azaltzeko zerbait interesgarririk irtengo balitz.

- 10. Jarduera → Ebaluazioa

- Bi zatitan banatuko dugu honako ebanaketa: Txinpartak eta sua. Horretarako arbelean sua marraztuko dugu. Sua da gure pelikula eta su hori pizteko zein txinparta izan dugu beharrezko? (6. mailakoak, lotsa galtzea, galderak egitea, taldean ondo lan egitea, erabakiak hartzea... -euren hitzekin beti ere-).

-Beraz, lehenengo eta behin txinpartak zerrendatuko ditugu eta bakoitzak txinparta bat idatziko du arbelean.

-Behin txinparta denak zerrendatuta ondorioak aterako ditugu (irakasleak su handi horretan idatziko ditu). Bertan ondorioztatuko dugu laguntza eskatzearen balioa zein garrantzitsua den, erabakiak hartzea, negoziatzea... Besteak aintzat hartzea, azken finean.



## **HEZURDURA**

- **Hasiera fasea** → Ikasleen aurrezagutzak aktibatu eta pixkanaka gaian murgilduko dira input eta jarduera diferenteen bitartez.
  - 1. jarduera → Oñatiko suteak
    - Helburua: Ikasleak gaian murgiltzea eta Oñatin ea suterik gogoratzen duten edo entzun duten galdetzea eta hedabideetako berrien titularrak irakurtzea.
    - Baliabideak: Irakasleak egingo duen galdera sorta + internetera sarbidea.
    - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa.
  - 2. jarduera → 1488ko sutea
    - Helburua: 1488ko sutearen berri ematea eta garrantziaz jabetzea.
    - Baliabideak: -
    - Ebaluazioa: Entzute aktiboa, errespetua... behatuko dira hemen.
  - 3. jarduera → Gertakizunen transmisiorako prestatzen
    - Helburua: Transmisioaren kontzeptua ulertarazten saiatzea eta azken xedea izango den hori finkatzea.
    - Baliabideak: -
    - Ebaluazioa: Behaketa
- **Garapen fasea** → Azken xedea modu egokian bete ahal izateko egin beharreko lanketen proposamena agertzen da fase honetan.
  - 4. jarduera → Dokumentuak irakurtzen
    - Helburua: Taldeka, sutearen inguruko informazioa irakurri, ulertu eta baliagarri bihurtu.
    - Baliabideak: Sutearen dokumentazio fitxak
    - Ebaluazioa: Behaketa
  - 5. Jarduera → Produkzioan murgildu
    - Helburua: Bideoak egitearen inguruko informazioa partekatu eta laguntza eta beharren eremua esploratu. Hala, 6. mailakoei laguntza eskatuko diete bideoak nola egin irakasteko (gutun bat idatziz).
    - Baliabideak: orri mutua.
    - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa
  - 6. Jarduera → Ikastaroa antolatzen eta jasotzen.
    - Helburua: 6. mailakoekin bilera egitea euren beharrak ondo azalduz. Ostean ikastaroa jasoko dute.

- Baliabideak: Arbela, ordenagailua, proiektorea...
  - Ebaluazioa: Behaketa.
- 
- **Ekoizpen fasea** → Landu den guztiarekin lehen fasean finkatutako azken xede hori lortzea edo lortzen saiatzea da fase honen helburua.
    - 7. jarduera → Ardurak banatzen eta lana prestatzen
      - Helburua: Talde txikitan ardurak banatzea eta lanari ekitea.
      - Baliabideak: Orri mutuak, idaztekoak, kamarak, ordenagailuak...
      - Ebaluazioa: Behaketa eta orriak
    - 8. jarduera → 3,2,1... GRABATZEN!
      - Helburua: Transmisorako izango den hori grabatzea eta editatzea.
      - Baliabideak: Aurretik sortutako informazio guztia.
      - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa eta euskarri idatziak
    - 9. Jarduera → Aurkezpena
      - Helburua: Taldean produzitutako ekoizpena guraso, langile edota eskola-kideei aurkeztea.
      - Baliabideak: Ordenagailua, proiektorea, mahaiak...
      - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa
    - 10. Jarduera → Ebaluazioa
      - Helburua: Talde handian egindako bidearen ebaluazioa egitea.
      - Baliabideak: Arbela eta argazki kamera edo mugikorra.
      - Ebaluazioa: Irakaslearen behaketa eta taldearen balorazioa.

## **ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)**

### **KALE BARRIA: KALEAREN BILAKAERA**

Itxuraz kontrako izena dauka kale honek. Ez da inolaz ere berria, Erdi Aroaren amaierara orduko, gutxienez, eremu garran- tzitsuarekin agertzen zaigulako hemengo dokumentu zaharre- tan: adibidez, 1477ko herri-ordenantzetan garbi asko adieraz- ten da Oñatiko kale-gunea Zubiaurretik (egungo Iturritxo plaza aldetik) Olaiturriraino (oraingo agustinoen eliza ondo- ra) heltzen zela. Hori bai, erdi inguruan Antzuelas-Arrano errekek, San Migel eliza baino goratxoago, egiten zuen eten zaba- larekin. Beraz, ondo bereizitako bi auzok egituratzen zuten ordurako hirigune oñatiarra: Kale Zaharrak eta Kale Barriak, batez ere. Artean ez zegoen askoz geroago gauzatuko zen pla- za nagusirik.

#### **• 1488ko sutea**

Dena den, XV. mendearen hondarreko Kale Barri hura zeha- ro itxuraldatu zitzaigun 1488ko sute ikaragarriaren eraginez. Garai hartako etxeak, batik bat, zurez egindakoak izaten ziren; belar, lasto eta liho asko gordetzen zuten; eta gainera sutegi uga- ri zeukaten etxepeetan, herriko *ultzegin* eta errementariak euren lanetarako zerabiltzatenak. Halako baldintzekin sua azkar asko zabalduko zen, haizearen laguntzaz, ziur aski. Kale Barria eta honen osteko aldea (Atzeko kalea) ez ezik, orduko Santa Mari- na auzoa ere erabat kiskalduta geratu ziren. Gorago aipatu dugun Antzuelas errekek eragotziko zion suari Kale Zaharre- ra iristea.

#### **• Hondamendia konpontzeko lehen urratsak**

Hartara, Kale Barria *berriagoa* moldatzeari ekin zioten herrita- rrek 1500 inguruan. Etxeak berreraikitzeke, lehen baino harri gehiago erabili zuten, eta sutegi gehienak Ubao errekez bes- taldera aldatu; orduan sortu ziren, hain zuzen ere, Zubibarri, Lekunbarri, Auzabarri eta beste errebal batzuk. Ikus dezake- zuenez, auzune hauen lehenengo bertsioa ere ez dugu atzo goi- zekoa.

Hala ere, esan beharra dago zuraz erruz baliatu zirela honda- tutako eraikinak berriro jasotzeko orduan. Horretarako, batzar irekia egin zuen kontzejuak Oñatiko San Migel plazan (enpa- rantza zaharrean, alegia), 1489ko otsailaren 22an, hemengo herri-baso desberdinetako hariztietatik materiala banatzeko arauak finkatzeko. Hori dela eta, kalerik kale eta auzorik auzo, familiaburu denen zerrenda zehatza idatzi zuten, larrialdi nabar- men hartan bakoitzak zenbateko diru-ekarpena egin behar zuen garbi adieraziz. Hau dugu oñatiarron lehenbiziko errolda, era askotako datuak eskaintzen dizkiguna; aberatsa, benetan.

#### **• Kalearen luzapenak**

Ez zen soilik erretako kale-gunea berreraiki. Karrikak luzatzeko aukera ere aprobetxatu zuten. Ordura arteko Kale Barria eta Atzeko kalea egungo Naparreneko kantoian eta Iturritxon bukatzen baziren, XVI. gizalditik aurrera sail berriak irabazi zituzten batak zein besteak. Kale Barriko zatia Kalegoiena legez ezagutu zen XVI.etik XIX.eraino; Atzeko kalearen luza- penari, Iturritxotik Portalekurainoko tarteari, ez zitzaion izen berezirik jarri berandura arte, aurrerago argituko den bezala.

Kalegoiena zeritzana Naparreneko kantoi horretatik orain- go Etxaluzeraino jasotako etxe-ilarek osatzen zuten. Geroago bes- te luzapen bat ere izan zuen kaleak, Etxaluzetik Murgizubieta- ra doana, San Martingo zubiraino, alegia: Auzotxo gisa zen ezaguna luzaroan eta 1970ko hamarraldian Martzelino Zelaia izen ofiziala bereganatu zuen, Etxaluzeko lorategi eta baratze- an poligono berria eraiki zenean.